

# Atxubieta

UDAL BERRIAK

Abendua  
Diciembre  
2010

112



LEMOA

Construcción  
de 71 viviendas  
en régimen  
de cooperativa

Talleres-eko  
zubiaren espaloiak  
hiru metro eta  
erdikoak izango dira

Gabonetako  
Agenda Kulturala





LEMOAKO UDALA

# Irudi berria

# Nueva imagen

Atxubietak irudi berria dauka. Kultur agenda eta Udaleko berriak batzen dituen formato berria, modernoa, erakargarriagoa eta irakurerraza zabaltzeko sortu da. Herritarren eta Udalaren artean komunikazioa bideratzeko egitasmo hau bizia eta zabala da, herritarrentzat pentsatua. Lehenago ere badaude beste bide batzuk, baina euskarri berri honetan sartuko dira alde batetik informazio interesgarriak (era guztietako berriak: etxebizitza, lan, zerbitzu, garraio eta gainerako gaiekin zerikusia dutenak) eta bestetik kultur agenda, orain arte beste itxura batekin aurkeztu dena. Agenda horretan sartuko dira Lemoan eratzten diren ekintzak, ikastaroak, irteerak, tailerrak eta Arratiako Udalen Mankomunitateko jarduera nagusiak. Ea gustuko duzuen! Edozein kasutan, iradokizun guztiak kontuan hartuko dira. Eskerrik asko!

Atxubieta tiene una nueva imagen, en la que aúna las noticias de información municipal y la agenda cultural en un formato moderno, ameno y atractivo. En esta nueva etapa se darán la mano la información de interés público (con noticias relacionadas con la vivienda, obras, servicios, transporte, etc.) y una completa agenda cultural, fiel reflejo de la diversa y variada oferta cultural de nuestro municipio. En ella tendrán cabida todas las actividades, cursos, viajes, salidas y talleres que se organizan en Lemoa, así como las actividades e informaciones de interés relacionadas con Arratiako Udalen Mankomunitatea. Esperamos que os guste, y por supuesto, estamos abiertos a todas vuestras sugerencias y propuestas. Eskerrik asko!





## El Ayuntamiento promoverá la construcción de 71 viviendas VPO en régimen de cooperativa

El precio de los pisos, que forman parte del proyecto residencial de San Ignacio, será a partir de 130.000 euros, con garaje y trastero incluidos.

De las 343 viviendas previstas en el proyecto residencial de San Ignacio, 71 serán de protección oficial (alrededor de un 20%), el resto, 272 será vivienda libre. El Ayuntamiento, adjudicatario de estas VPO, plantea promover la creación de una cooperativa para abrir la posibilidad de adquirir un piso nuevo a todos los vecinos de Lemoa.

A esta cooperativa, constituida en primer término por

los y las lemoarras que lleven empadronados en el pueblo un mínimo de dos años, podrán unirse habitantes de otros municipios en caso de no cubrirse las plazas. El precio de las viviendas será a partir de 130.000 euros, con garaje y trastero incluidos. Con esta iniciativa, el Ayuntamiento continúa con la línea marcada en estos últimos años, es decir, fomentar las VPO, por una parte, y dar prioridad en su adquisición a los vecinos y vecinas de Lemoa, por otra. Esta política se concretó en 1998 con el Sector Residencial Elizondo, 58 viviendas, y en 2005 en Elizondo-San Ignacio, con otras 40 VPO.

Próximamente, los y las lemoarras recibirán en sus buzones la información detallada de esta nueva promoción, así como los requisitos y plazos para poder solicitar una de las viviendas.



# Tailerretako zubiko espaloiak zabaldu egingo dira, oinezkoen segurtasuna bermatzeko

Lanen lizitazioa abian dago, eta, aurreikusitakoaren arabera, lanak datorren maiatzerako bukatuko dira.

Udalak tailerretako zubiaren espaloiak zabaltzeko lanen lizitazio prozesua abiarazi du. Lanen aurrekontua 275.000 eurokoa izango da, lehenengo faserako. Lanen helburua da espaloiek 3,50 metroko zabalera izatea; horretarako, atxikitako egitura bi gehituko zaizkio egungo zubiari. Gainera, altzairu galbanizatutako baranda bat jarriko da, bai eta oinezkoen pasabidea eragiteko semaforo bat.

Lan hauekin guztiekin, Irisgarritasun Legea beteko da, izan ere, pasabideak ja-



rriko dira oinezkoen bideetan eta autobus geltokian. Aurreikusitakoari jarraituz, lanak 2011ko maiatzean amaituko dira. Zubiko espaloiak zaharkituta daude, eta Zornotza-Lemoa BI-635 zirkulazio handiko errepidearen mugakide dira (batez ere, ibilgailu astunena). Estuak direnez, ezin daitezke haurren gurditxoak, orgatxoak eta antzekoak iragan, eta, horregatik, hain zuzen ere, pertsona askok zuzenean galtzadatik joatea erabakitzen du, horrek guztiak arrisku handia dakar. Gainera, inguruan Eguzkiza Meabe Ikastetxeko ikasleak ibiltzen dira. Hori dela eta, interbentzioa behar-beharrezkoa dela ikusten da.

## Arratiako Musika Eskolako ikasleen kontzertua

Abenduko bigarren hamabostaldian zehar, Arratiako Musika Eskolako Lemoako ikasleek hainbat entzunaldi eskeiniko dituzte Musika Eskolako Aretoan.

Abenduaren 15ean arrastiko 18.30ean AKORDEOIKO eta GITARRAKO ikasleak arituko dira; abenduaren 16an arras-

tiko 18.00etan TRIKITIXAKO ikasleak eta PIANOKO ikaslerik gazteenak; eta azkenik

abenduaren 20an arrastiko 18.00etan PIANOKO beste ikasle guztiak arituko dira.



Se reordenará la circulación del tráfico, se plantarán árboles y se mejorarán el mobiliario y alumbrado público.



## Intzuntza tendrá otra cara con más aparcamientos, pavimentación nueva y zonas verdes

El barrio de Intzuntza presentará en unos pocos meses un nuevo aspecto. La zona, que abarca un espacio de 59.000 m<sup>2</sup> y cuyas viviendas tienen ya más de cuarenta años, contará con una partida presupuestaria de más de 500.000 euros destinado a una completa remodelación y urbanización. Así,

para el mes de agosto se dispondrán nuevas plazas de aparcamiento y zonas verdes que mejorarán la imagen del barrio y la calidad de vida de sus vecinos y vecinas.

Se pavimentarán las calzadas y aceras, se habilitarán más zonas de estacionamiento para los coches y se reordenará la

circulación del tráfico. Además, se dotará de jardinería y arbolado a las zonas verdes, y se renovará todo el mobiliario urbano y el alumbrado público. El proyecto incluye la adaptación de todas las actuaciones a las normas de accesibilidad a portales y el resto de elementos urbanos.

### www.arratia.net web orrian mankomunitatea klik baten

Arratiako Udalen Mankomunitateak aurrera pausu nabaria eman du aurten [www.arratia.net](http://www.arratia.net) atari berriarekin. Biscaytik erakunde publikoaren eskutik, web honek harrera ezin hobea izan du gurean. Bertan, lurraldeko udalerrri guztien egunerokoa, zerbitzuak, administrazio ezberdinen kudeaketa eta turismo informazioa kontsultatzeko aukera dago.

### Plazos de subvenciones y ordenanzas municipales

A finales del mes de diciembre finaliza el plazo de presentación de solicitudes de las subvenciones para actividades realizadas en el 2010 por parte de las distintas Asociaciones Culturales y Deportivas de Lemoa. Además, se publicarán en el Boletín Oficial de Bizkaia las Ordenanzas Municipales para el año 2011.

## ABENDUA

### Abenduak 1 Eguaztena

“MENDIZALETASUNA EUSKARAZ GOZATU”

#### HITZALDIA

Alberto Inurrategi eta Alex Txikon

Tokia: jubilatuen etxeko 1. solairua

Ordua: 19:00



### Abenduak 3 Barikua

#### EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Arratiako herrien arteko kultur lehiaketa hasiko da Lehiaketan parte hartzeko txartelak Lemoako denda eta tabernetan aurkitu ahal izango dituzu

Saria: bi lagunentzako afaria Axpe Goikoa Erretegian (Dima)

Informazioa gehiago: 946313005 /  
euskara@lemoa.net

### Abenduak 10 Barikua



HAURRENTZAKO V. GABONETAKO MARRAZKI LEHIAKETAN LANAK ENTREGATZEKO EPEA AMAITUKO DA

Marrazkiak non entregatu:  
ludoteka

Orduetgia: 16:30 - 19:30



### Abenduaren 13tik 17ra arte

#### TAILERRAK LUDOTEKAN. GAIA: GABONAK

Olentzerori eskutitza idatziko diogu, gabonetako postalak egingo ditugu, ludoteka gabonetako apaingarriez jantziko dugu...

Orduetgia: 16:30 - 19:30

### Abenduak 16 Eguena

#### V. GABONETAKO MARRAZKI LEHIAKETAREN SARI BANAKETA

Ipuin-kontalaria eta txotxongiloak izango ditugu (Rosa Mari Martínez)

Tokia: ludoteka

Ordua: 18:00

- Lehiaketa honetan parte hartu dutenei diploma bana emango zaie
- Lehiaketara aurkeztutako marrazki guztiak Udaleko web orrialdean argitaratuko dira
- **Oharra:** zozketan sarituta ateratzen den pertsona ludotekan bertan ez badago, beste izen bat aterako da.

### Abenduak 18 Zapateria

#### TURROI EGUNA

Ganzabal Mendi Taldeak eta J. B. Eguskiza Meabe Ikastetxeak antolatuta.

Tokia: ENEABE (781m) mendian, Ubiden

### Abenduak 21 Martitena

#### GAZTAIN EGUNA

J. B. Eguskiza Meabe Ikastetxeak antolatuta Ume eta gurasoentzat

Tokia: eskola

Ordua: 10:00etatik aurrera

# DICIEMBRE

## Miércoles 1 de Diciembre

### CHARLA "MENDIZALETASUNA EUSKARAZ GOZATU"

Alberto Inurrategi y Alex Txikon

Lugar: 1ª planta del hogar de jubilados

Hora: 19:00



## Viernes 3 de Diciembre

### DÍA INTERNACIONAL DEL EUSKERA

Comienza el concurso cultural entre pueblos de Arratia

Podrás encontrar las tarjetas para participar, en bares y tiendas de Lemoa

Premio: una cena para dos personas en el Asador Xpe Goikoa (Dima)

Más información: 946313005 /

euskara@lemoa.net

## Viernes 10 de Diciembre

### FINALIZA EL PLAZO PARA PRESENTAR EL DIBUJO AL V CONCURSO INFANTIL DE DIBUJOS NAVIDEÑOS

Lugar de entrega: ludoteca

Horario: 16:30 - 19:30

## Del 13 al 17 de Diciembre

### TALLERES EN LA LUDOTECA. TEMA: NAVIDADES

Le escribiremos la carta al Olentzero, haremos postales de navidad, decoraremos la ludoteca con adornos navideños...

Horario: 16:30 - 19:30

## Jueves 16 de Diciembre

### ENTREGA DE PREMIOS DEL V CONCURSO INFANTIL DE DIBUJOS NAVIDEÑOS

Nos visitará la cuentacuentos Rosa Mari Martínez con sus marionetas

Lugar: ludoteca

Hora: 18:00

Se premiará la participación en este concurso con la entrega de un diploma.

Todos los trabajos presentados a concurso se publicarán en la página web del Ayuntamiento  
Nota: en caso de que la persona premiada en el sorteo no se encuentre en la ludoteca, se sacará otro nombre.

## Sábado 18 de Diciembre

### DÍA DEL TURRÓN

Organizado por Ganzabal Mendi Taldea y J. B. Eguskiza Meabe Ikastetxea

Lugar: monte ENEABE (781m), en Ubidea



**Abenduak 22 Eguaztena****GABONETAKO EMANALDIA**

J. B. Eguskiza Meabe Ikastetxeak antolatuta  
Gurasoentzat

**Tokia:** kiroldegia

**Ordua:** 10:30

Eguerdiko 12:00ak aldera kalejira  
Udaletxera: umeak eta gurasoak  
Olentzerorekin batera

# Gabon

**Abenduak 24 Barikua****OLENTZERO EGUNA.**

Auzorik auzo Olentzerogaz batera gabon kantak abesten joango gara, eta Elizondon salda eta txokolatea banatuko da parte-hartzaile guztientzat. Jaiari amaiera emateko, Elizondoko eskola zaharretan (eskulanean lokalean) Olentzerogaz egoteko aukera izango dogu. Gozokiak banatuko dira ume guztien artean.

Hasiera ordua: 10:00etan Udaletxean

**Abenduak 26 Domeka****GABONETAKO HAUR PARKEA LEMOAKO KIROLDEGIAN**

- “HAUR TXOKOA”: ludoteka, puzgarri txikia eta makillaje tailerra
- “UME TXOKOA”: puzgarri ertaina, puzgarri handia eta trufak egiteko tailerra
- “GAZTE TXOKOA”: giza futbolina eta wii gunea

**Orduetgia:** 11:00 – 14:00 / 16:00 – 18:00

- **Betizu Diskofesta!**: Betizuko behiekin argazkiak ateratzeko aukera izango duzue

**Orduetgia:** 18:00 – 19:30

**Abenduak 28 Martitzena****BEC-eko UMEEN GABONETAKO PARKERA IRTEERA**

5 urtetik gorakoentzat.

**Izena eman:** ludotekan, abenduaren 17ra arte

**Prezioa:** 4€

- 100 plaza egongo dira (aurretiko izen emateak lehentasuna izango du)
- Bazkaria etxetik eraman behar da (ogitartekoa) eta dirurik gabe joatea gomendatzen da

**Irteera ordua:** 10:30ean ludotekan

**Itzulera ordua:** 19:00etan



# onak

**Martes 21 de Diciembre**

## GAZTAIN EGUNA

Organizado por J. B. Eguskiza Meabe Ikastetxea

Para niños/as, padres y madres

Lugar: escuela

Hora: de las 10:00 en adelante

**Miércoles 22 de Diciembre**

## REPRESENTACIÓN DE NAVIDAD

Organizado por J. B. Eguskiza Meabe Ikastetxea

Para padres y madres

Lugar: polideportivo

Hora: 10:30

Sobre las 12:00 del mediodía, kalejira al Ayuntamiento: niños/as, padres y madres, con Olentzero

**Viernes 24 de Diciembre**

## DÍA DE OLENTZERO

Recorreremos los barrios cantando canciones navideñas con Olentzero y, habrá caldo y chocolate para todas las personas participantes en Elizondo. Para finalizar la fiesta, podremos estar con Olentzero en las antiguas escuelas de Elizondo (local de manualidades). Se repartirán caramelos entre todos los niños y niñas.

Hora de inicio: 10:00h. en el Ayuntamiento



**Domingo 26 de Diciembre**

## PARQUE INFANTIL DE NAVIDAD EN EL POLI-DEPORTIVO DE LEMOA

- “HAUR TXOKOA”: ludoteca, hinchable pequeño y taller de maquillaje
  - “UME TXOKOA”: hinchable mediano, hinchable grande y taller de trufas de chocolate
  - “GAZTE TXOKOA”: fútbol humano y zona wii
- Horario: 11:00 – 14:00 / 16:00 – 18:00

- **Betizu Diskofesta!**: Tendréis oportunidad de sacaros fotos con las vacas de Betizu

Horario: 18:00 – 19:30

**Martes 28 de Diciembre**

## SALIDA AL PARQUE INFANTIL DE NAVIDAD DEL BEC

Para mayores de 5 años.

Inscripción: en la ludoteca, hasta el 17 de diciembre

Precio: 4€

- Habrá 100 plazas (por orden de inscripción)
- Hay que llevar la comida de casa (bocadillo) y se recomienda ir sin dinero

Hora de salida: 10:30 en la ludoteca

Hora de regreso: 19:00



## OHARRAK

### GABONETAN LUDOTEKA GOIZEZ ZABALDUKO DA

Abenduaren 23tik urtarrilaren 7ra arte (egun biak barne). Ordutegia: 11:00 – 14:00.

### LIBURUTEGIA OHIKO ORDUTEGIAN EGONGO DA ZABALIK (16:30 – 19:30).

Abenduaren 24an, 31n eta urtarrilaren 5ean izan ezik, egun hauetan goizez zabalduko da (11:00 – 14:00).

### “BERBALAGUN” EUSKARA PRAKTIKATZEKO TALDEA

Interesaturik bazabiltza anima zaitetz, deitu 946313005 telefono zenbakira (martitzetik eguenera), edo bidali mezu bat helbide honetara euskara@lemoa.net. Informazio gehiago gure web orrialdean.

**EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGO**A dagoeneko eskuratu ahal duzue. Katalogoa leku hauetan aurkitu ahal izango duzue: eskolan bertan, herriko hainbat taberna eta dendatan eta, Udaletxeko harrerarek bulegoan. Gabon hauetan oparitu euskaraz! [www.katalogoa.org](http://www.katalogoa.org)

### LIBURUTEGIKO NOBEDADEAK

*Barbie diamantezko gaztelua* (DVD), Bat Pat. *Gauerdiko sorginak* - Roberto Pavanello (8-12 urte), *Katu jendea* - Eider Rodríguez, *Crimen en directo* - Camilla Läckberg, *Riña de gatos* – Madrid 1936 - Eduardo Mendoza (Premio Planeta 2010).

### KZ GUNEKO TUTOREA LEMOAN

- Abenduak 1, eguaztena: 09:00 - 13:00
- Abenduak 15, eguaztena: 09:00 - 13:00
- Abenduak 29, eguaztena: 09:00 - 13:00

**GANZABAL MENDI TALDEAK** antolatutako ekintzen inguruko informazioa: Lemoako eskoletan - Jubilatuen Etxeko 1. solairuan eguaztenetan 20:00etatik 22:00etara edo 675701359 / 946314597 telefono zenbakietan.

**IGORREKO KULTUR ETXEKO ZINE EGI-TARUA** liburutegian kontsultatu daitezke.



## NOTAS

**EN NAVIDADES LA LUDOTECA SE ABRIRÁ EN HORARIO DE MAÑANA**  
Del 23 de diciembre al 7 de enero (ambos incluidos). Horario: 11:00 – 14:00.

**BIBLIOTECA ABIERTA EN HORARIO HABITUAL (16:30 – 19:30).**  
Excepto los días 24 y 31 de diciembre, y 5 de enero; estos días se abrirá en horario de mañana (11:00 – 14:00).

**“BERBALAGUN” GRUPO PARA PRACTICAR EUSKERA**  
Si te interesa llama al número de teléfono 946313005 (de martes a jueves), o envía un mensaje a esta dirección [euskara@lemoa.net](mailto:euskara@lemoa.net). Más información en nuestra página web.

**CATÁLOGO DE PRODUCTOS EN EUSKERA**  
Podréis encontrar el catálogo en la escuela, en diferentes bares y tiendas del pueblo, y en la recepción del Ayuntamiento. Estas Navidades regala en euskera! [www.katalogoa.org](http://www.katalogoa.org)

**NOVEDADES DE LA BIBLIOTECA**  
Barbie diamantezko gaztelua (DVD), Bat Pat. Gauerdiko sorginak - Roberto Pavanello (8-12 años), Katu jendea - Eider Rodríguez, Crimen en directo - Camilla Läckberg, Riña de gatos - Madrid 1936 - Eduardo Mendoza (Premio Planeta 2010).

**Arratiako Berbalagunen III. lehiaketeta**

**Ezetz asmatu! Lotu egizuz adibidean ikusten dozun moduen**

0.- Upokolupetza	a) Upo mendian dagoan lokatz-lekua
1 Zubisiku	b) egur-ikatz xehea egoan lekua. Gaur baserria
2 Artzara	c) burdinola txiki bat egon zan bertan, gero errota eta Oñandia familiaren okindegia
3 Jentiletxe	d) (Artzan ahoskatuta), baserri-izena. Hartzen bailara ei zan Arratia lehen
4 Arragoeta	e) Injuru honetan, bat egiten dabe Ibazabal eta Arratia ibaiak
5 Idurieta	f) Bertan monstruo bat, erraldola eta begibakarra bizi ei zan

**Ze herritakoak dira?**  
Dima\_\_ Lemoa\_\_ Igorre\_\_ Areatza\_\_ Arantzazu\_\_

Noiz arte? urtariraren 14ra arte  
Erantzunak: [gorbaldedirratia@gmail.com](mailto:gorbaldedirratia@gmail.com) helbidera, mezu bat **635 034 150** telefonora deitu, Bestela zure udalretxeko euskara edo kultura zerbitzuan entregatu.  
Saria: Axpe Goikoan bi lagunentzako bazkaria

Utzi gureharrak  
Arratia  
Areatza  
Igorre  
Lemoa

Batzarburua

**EL TUTOR DEL KZ GUNEA EN LEMOA**

- Miércoles, 1 de diciembre: 09:00 - 13:00
- Miércoles, 15 de diciembre: 09:00 - 13:00
- Miércoles, 29 de diciembre: 09:00 - 13:00

Información sobre las actividades organizadas por **GANZABAL MENDI TALDEA**, los miércoles de 20:00h. a 22:00h. en la 1ª planta del Hogar de los Jubilados - Escuelas de Lemoa, o en los siguientes números de teléfono: 675701359 / 946314597.

**LA CARTELERA DE CINE DE LA CASA DE CULTURA DE IGORRE** se puede consultar en la biblioteca.



PAPEREZKO EDIZIOA,  
hautatutako produktuekin.

INTERNETen  
produktu gehiago  
eta azken ordukoak!  
[www.katalogoa.org](http://www.katalogoa.org)

musika  
filmak aldizkariak  
komikiak liburuak  
gurasoentzako  
materiala  
informatika  
jostailu eta jokoak

## GABON HAUETAN OPARITU EUSKARAZ !

Euskarazko produktuen katalogoak 12 urteko ibilbidea osatu du dagoeneko. Euskal Herriko lurralde eta ezaugarri oso ezberdineko hainbat herritako udalok egin dugu bat euskarazko produktuak sustatzeko ekimen honetan: handiak nahiz txikiak; euskaldun kopuru altuko nahiz baxukoak; kostaldekoak, erriberakoak, errioxakoak edo mendialdekoak. Euskarazko produktuak erdaren itsasoan nabarmendu behar direla, eta egon badagoen

hori erdarazko produktuen itzaletik argitara ekarri behar dela. Euskarazko produktuen katalogoa bultzatzen dugun udal erakundeak, horrenbestez, gure udalerrien ezaugarrien arteko aldeak gorabehera, bat egin dugu Euskal Herrian 240.000 aleko zabalkundea duen KATALOGOA osatzeko eta banatzeko, etxeko haur eta gaztetxoek euskaraz jolasteko, ikasteko, irakurtzeko eta gozatzeko aukera izan dezaten.

Katalogoa leku hauetan aurkitu ahal izango dozue:

LEMOAKO ESKOLAN

HERRIKO HAINBAT TABERNA ETA DENDATAN

UDALETXEKO HARRERA BULEGOAN

Udaletxea

94 631 34 59 / 94 631 30 05

[lemoa@lemoa.net](mailto:lemoa@lemoa.net)

[www.lemoa.net](http://www.lemoa.net)



Kultura / Cultura .....	94 631 30 05
Udaltzaingoa / Alguacil .....	94 631 30 05
Osasundegia / Centro de salud .....	94 631 31 16
Bake epaitegia / Juzgado de paz .....	94 631 25 52
Gizarte ongizatea / Acción social .....	94 631 25 51
Udal luburutegia / Biblioteca municipal .....	94 631 20 64
J.B. Eguzkitz Meabe Herri Ikastetxea .....	94 631 32 28
Haureskola / Guardería .....	94 631 21 08
Udal Polikirolegia / Polideportivo municipal .....	94 631 42 97